
Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

Informazio-Buletina



UZTAILA 2026

Buletin honetan Mendebaldeko Saharari buruzko azken berriak eta urteko bigarren hiruhilekoko elkartearen jarduerak aurkituko dituzu.

1976-2026 50 urte años

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)

ABERRI bat eraikitzen
Construyendo una **NACIÓN**

República Árabe Saharaui Democrática (RASD)

Buletin honetan, ondoko gaiei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- Gatazkaren egoera
- Errefuxiatuen kanpamenduetarako bidaia, 2026ko maiatza
- Sahara Libre jaialdia – Madril
- Giza Eskubideen Kontseiluaren Genevako 62. bilkuran parte hartzea.
- “Aberastasun Lapurtua” literatur lehiaketa
- Elkartearen Urteko Batzarra

Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org

Gatazkaren egoera

Aurreko buletinean, Brahim Galik gobernuan egindako aldaketen harira, mezu ezkutuez hitz egiten genuen; ematen zuen esan nahi zuela negoziaketei baietzarekin batera, ez zegoela armak bertan behera uzteko prest. Ondoren, Esmarako aireportu ondoko base militarraren kontrako erasoa mezu horren baieztapentzat har genezake.

Oraingoan marokoarrek zeharkako mezua eman nahi izan dute. Kasu honetan, elkarrizketak eta diplomaziaz haratago, daukaten indarra erakutsi nahi izan dute eta horretarako, guztiz apropos Israelen taktika eta baliabideak gogorarazten duen ekintza batean, Lehbib Mohamed Abdelaziz eta beste bi kide -Gali Luchaa y Salek Muhsen - hil dituzte drone eraso batez.

Lehbib Polisarioren idazkaritza nazionaleko kiderik gazteena eta azken kongresuan boto gehien lortu zuenetako bat zen eta, bere prestakuntza, jatorria – aurreko presidentearen semea zen – eta borrokan zeraman ibilbideagatik, askorentzat Brahim Gali ondorengotzat hartu beharko genukeen. Baina Marokok ez zuen bakarrik Polisarioren buruzagitzan kolpe bat eman nahi, ezta bakarrik nahi dituen helburuak jotzeko ahalmen militarra erakutsi ere, kolpe honekin Israelek Gazan eta bere inguru osoan nahi duena egiteko duen antzeko inpunitatea daukala adierazi nahi zuen.

Batetik, erasoa Staffan de Mistura, NBEko ordezkari nagusia, Polisariorekin hitz egiten ari zen unean egiteak nazioarteko erakundeari zer nolako balioa ematen dion argi utzi nahi izan du – aurretik argi ez bazegoen ere – baina, batez ere, frogatu nahi zuen erasoagatik ez zuela mundu osoko inolako gaitzespenik jasoko. Eta halaxe izan da. SEADen armadaren (ELPSren) biktima gabeko erasoa NBEk, UEk, Espainiak, AEBk, Frantziak eta alderdi askok berehala gaitzetsi zuten bitartean, isilunea zabaldu da erakunde horietan guztietan Lehbiben hilketaren inguruan. Nazio Batuek, adibidez, bakarrik prentsaren galdera bat erantzuterakoan ausartu dira esatera “kezkatuta daudela” eta Albares ministroak, era berean, egun batzuk pasa ondoren, galdera parlamentario bat erantzun behar izan duenean, bere isiltasuna justifikatu du: “beste inork ere ez duelako ezer esan.”

Hedabideetan, ordea, kontrako fenomenoa gertatu da. Ia inork ez zuen Esmarako ekintza zabaldu, baina Lehbiben hilketak prentsa eta sareetan orri eta analisi luzeak bete ditu. Hausnarketa merezi dute gure hedabideek kontu batzuk argitaratzeko eta beste batzuk ezkutatzeko dituzten irizpide eta joerek.

Baina, oihartzun mediatikoak, bigarren mailako ondorioa izan du ere: aspaldian ez zen nazioarteko eta estatuko prentsan hainbeste idatzi eta hitz egin Saharako gatazka eta gatazkaren ondorioei buruz. Badirudi, Saharan gerra bat dagoela, erbesteratze masiboa, autodeterminazio auzia konpontzeke, errepresio eta espoliazio egoera eta nazioarteko interes geopolitiko desberdinak, denek batera gogoratu dutela. Gaitz asko, onerako, dio esaldi zaharrak. Hala ere, oso gutxitan azpimarratu da saharar errefuxiatuek bizi duten giza egoera zaila, gosete mehatxua barne, politikoki presionatzeko erabiltzen ari dela edo Nazio Batuen eta Espainiar estatuaren baztertze prozesua AEBk gidatutako mendebaldeak egin duen nazioarteko zuzenbidearen kontrako apustuaren ondorio bat dela.

Gure inguruan, ume saharararrak itxaroten ditugun bitartean, saharararrek, orain 500 urte kanporatutako sefardien ondokoek naziotasuna lortzeko dituzten aukera berdinak onartzeko legeak, 2 urteko geldieraren ondoren, martxa hartu du. Eta, nahiz eta legeak ez duen, inondik ere, saharararren izaera eta bere autodeterminaziorako eskubidea ordezkatzen, espero dugu, prentsan piztutako eztabaidak, Espainiaren erantzukizunaz ere pentsa arazteko balio izan dadila. Uda ona izan.



Errefuxiatuen kanpamenduetarako bidaia, 2026ko maiatza

Maiatzaren hasieran, Bilbakiko Esther Canarias eta elkarteko Geert Demon kanpamenduetara joan ziren, 2025eko urtarrilean emakumeak garraio publikoa erabiltzeko duten aukerari buruz hasitako hausnarketa-prozesuari jarraipena emateko asmotan. Maiatzaren 4an, Auserden 19 emakumerekin egindako bilera batean prozesua itxi zen, emakumeek garraioaren erabilerari buruz egindako datuen bilketarekin eta hobetzeko proposamenekin. Guztira, bost wilayetatik etorritako 152 emakumek eta 19 gizonek hartu dute parte hausnarketa-prozesu horretan.

Hurrengo egunean, maiatzaren 5ean, labur-labur aurkeztu zitzaion prozesu osoan bildutako informazioa Garraio Publikoaren Ministerioko lantaldeari. Lantalde hori honako hauek osatzen dute: ministroak, idazkari nagusiak, Gai Teknikoen zuzendariak, Garraio Publikoko zuzendari laguntzaileak, Erregaiaren zuzendariak eta Lankidetza Ministerioaren bitartekariak. Hurrengo bi egunetan, lan-saio trinkoetan, talde horrek hobekuntza-proposamen batzuk egin zituen, hiru ardatzen inguruan egituratuta: Rabuniko administrazio-zentroarekiko lotura, wilayen arteko konektibitatea eta wilayen barruko garraioa. Azken topaketa batean, ministerioko lantaldeak berak zehaztutako jarduera nagusiak berrikusi eta finkatu ziren.

Ondoren, bilera bat egin zen Elkartearen egoitzan, eta, bertan, prozesua finantzatzen duen Euskal Fondoaren arduradunen aurrean, prozesuaren garapena, mugarri nagusiak eta lortutako ondorioak aurkeztu ziren.

Sahara Libre jaialdia – Madril

CEASek Rivas-Vaciamadriden maiatzaren 23an, larunbata, antolatutako Sahara Libre jaialdian parte hartuko dugu. Jaialdia elkartasunari lotutako musika eta kultura topaketa izan da. Familia-jarduerak, tailerrak, gastronomia, gune pedagogikoak, eragin politikoa, eztabaida-guneak eta hainbat gairi buruzko hitzaldiak izan dira. Egun hori bozgorailu bat izan zen isiltasunaren aurrean, SEADek bere 50. urteurrena betetzen duen urtean.



Giza Eskubideen Kontseiluaren Genevako 62. bilkuran parte hartzea.

Elkarteko giza eskubideen arloko koordinatzaileak, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak Genevan 2026ko ekainaren 15etik 19ra egin duen bileran parte hartu du. Genevan egoitza duen Fronte Polisarioak Suitzan duen Ordezkaritzari eta Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Lantaldeari emandako laguntza eta lankidetza lanaren emaitza da parte-hartze hori, eta laguntza teknikoaren eskaerari erantzun dio.

Lan-agendan hainbat bilera egin ziren Nazio Batuen zenbait Prozedura Berezirekin eta Errelatoriarekin, bilerak NBEren aurrean akreditatutako misio diplomatikoetako ordezkariekin eta bilerak giza eskubideetan espezializatutako nazioarteko erakundeekin. Era berean, bi ekitaldi paralelo antolatu ziren (side events): "Mendebaldeko Sahara: nazioarteko legezkotasunari desafioak" eta "Mendebaldeko Sahara: urtebete berrikuspenaren pean". Bigarrenean, giza eskubideen urraketei buruzko 2025eko urteko txostena aurkeztu da, "Ahotsak erresistentziatik", NOVACTekin eta ACAPS Catalunyarekin batera egindako Lantaldeak egina.

Horrelako espazioetan parte hartzea funtsezkoa da nazioarteko laguntza-sareak indartzen jarraitzeko eta saharar defendatzaileen ahotsak giza eskubideen nazioarteko foro nagusietan zuzenean entzun daitezen bermatzeko.

"Ahotsak erresistentziatik" txostena esteka honetan aurki dezakezu: https://www.westernsaharareports.com /





“Aberastasun Lapurtua” literatur lehiaketa

Badira 50 urte baino gehiago Mendebaldeko Saharak Marokoren okupazioa pairatzen duela. Okupazio horrek oso ezagunak ez diren ondorioak ditu. Mendebaldeko Sahararen okupazioaren ondorioz, lurraldea 2.800 kilometro baino gehiagoko harresi militar baten bidez banatu da, sahararren erdiak baino gehiagok erbestean bizi behar due, eta errepresioa eragin die lurraldean geratu eta nazioarteko erakundeek aitortutako beren eskubideak aldarrikatzera ausartzen diren pertsona guztiei. Baina Marokok, lurraldea okupatzen duen indarrak, Europar Batasuna bezalako beste estatu eta erakunde batzuen adostasunarekin, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak bereganatu eta ustiatzen ditu bere onurarako, ekuaziotik lurraldeko jatorrizko biztanleria ezabatuz.

Mendebaldeko Sahararen espoliazioa zertan datzan ezagutarazteko asmoz, "Aberastasun Lapurtua" kontakizun laburren literatur lehiaketa jarri zen abian urtarrilaren 30ean. Kontakizunak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu behar ziren, gazteen edo helduen kategorietan. Tindoufeko errefuxiatu-kanpamenduetan bizi diren pertsonentzako arabierazko bertsioa ere jarri zen martxan.

Elisa Ruedak, Kristina Berasainek eta Iban Zalduak osatu dute euskara eta gaztelaniazko lanen epaimahaia.

Deliberazio prozesuaren ondoren, epaimahaiek ebatzi dute kategoria bakoitzerako saritutako kontakizunak honako hauek direla:

CATEGORIA	NOMBRE	TÍTULO
EUSKARAZ 18-36	Peru amorrortu	Gor
EUSKARAZ 36+	Jose Luis Gonzalez	Talha. Saharraren zuhaitza
GAZTELANIAZ 18-36	Olatz Lakarta	Lo que nunca podrán robar
GAZTELANIAZ 36 +	Miren Olascoaga Peña	Hambre
ARABIERAZ 18-36	Hendu Abdulah	la cesta de final de mes / هند عبدالله
ARABIERAZ 36+	Nasra al-Ghawth Allal	La riqueza robada / نصرة الغوث علال

Elkartearen Urteko Batzarra

Ekainaren 25ean urteko ohiko batzarra egin genuen, eta bertan nahitaezko gaiak jorratu genituen (2024ko kontuen azterketa, 2025erako aurrekontua, urteko jardueren memoria, Zuzendaritza Batzordea berritzea...). Azken puntu horri dagokionez, jakinarazi nahi dizuegu aurten Zuzendaritza Batzordea berritu dela eta Ander Madrazo izango dela presidentea, Iratxe Arrizabalaga, idazkaria eta Geert Demon, diruzaina.

(Informazio gehiago gurewebgunean, gardentasunaren atalean)

